

## Hainbat ospakizun Euskararen Nazioarteko Egunean

2014/12/04

Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekintzak antolatu ziren MONDRAGON UNIBERTSITATEko Goi Eskola Politeknikoko bi campusetan. Arrasateko Euskalgintzak funanbulista baten ikuskizunarekin hasi zuen honako leloa duen kanpaina: "Badago hizkuntza ohiturak aldatzea baino gauza zailagorik." Lelo hori hartu eta slackline-ko zintak jarri ziren Iturripeko lorategietan. Argi geratu zen, slackline-aren gainean oreka mantentzea hizkuntza ohiturak aldatzea baino zailagoa dela.

Donostialdeako campusean berriz, gymkana dibertigarria egin zuten. Parte hartu zuten 21 taldeek (100 ikasle baino gehiagok) 8 frogak osatzen zuten gymkanan lehiatu ziren eta bertan erakutsi zituzten euren abilezia eta indarrak. Goiza borobiltzeko eta indarrak hartzeko hamaiketakoa prestatu zuten ikasleek eta unibertsitateko langile eta irakasleek. Txistorra eta tortilla pintxoak saldu zituzten, gazta eta eztiak zozketatzearekin batera, bildutako dirua guztion artean 2015ean egingo den Korrika 19ko kilometroa erostera bideratuko da. Argazkiak ikusgai Flickr-en.

